



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

**CONDICIONADO ADJUDICACIÓN TARJETAS
PARA LA CAZA DE LA BECADA
COTO NA-10418
Temporada 2025-2026**

La Junta General del Valle de Aezkoa anuncia la venta de **19** tarjetas individuales de caza de becada al precio de setecientos euros, más IVA por tarjeta. La venta se realizará por el orden regulado en las presentes condiciones, y comprenderá las zonas autorizadas en el Monte Aezkoa (NA-10418) para la temporada 2025-2026.

1- Objeto

Es objeto del presente pliego el establecimiento de las condiciones que han de regir la adjudicación del aprovechamiento de la caza de becada en el coto de caza NA-10.418 que comprende una superficie de 6.309 hectáreas en el Monte Aezkoa, y el ejercicio de dicho aprovechamiento durante la temporada 2025-2026.

2.- Determinaciones y condiciones del aprovechamiento.

El aprovechamiento comprenderá la caza de becada con los cupos y fechas que cada año establezca Gobierno de Navarra y de conformidad con lo dispuesto en el Plan de Ordenación Cinegética del Coto NA-10418, que regula el coto de caza.

El adjudicatario será responsable del cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia de protección de la fauna silvestre. En todo lo no dispuesto en el presente condicionado será de aplicación la Ley Foral 17/2005 de 22 de Diciembre de Caza y Pesca y resto de normativa aplicable.

3- Plazo del arriendo

El arriendo se efectuará para una única temporada, la correspondiente a 2025-2026.

4- Precio del arriendo

El precio de cada tarjeta es de **SETECIENTOS EUROS (700,00 €)** más IVA, lo que supone un total de **ochocientos cuarenta y siete (847,00 €, IVA incluido)**. Las personas adjudicatarias deberán abonar el importe de las tarjetas antes **del día 30 de agosto de 2025**. Quienes no hayan abonado para esa fecha la factura correspondiente se entenderá que desisten de la solicitud y las tarjetas pasarán a disposición de la Junta para que apruebe su adjudicación al resto de solicitantes, remitiéndose la correspondiente factura negativa de corrección.

El pago de la tarjeta dará derecho a la obtención de un permiso para el acceso con un vehículo por todas las pistas del comunal de la Junta de Aezkoa, exclusivamente para las fechas en que está habilitada la caza de becada.

5- Procedimiento

La adjudicación de las tarjetas se efectuará siguiendo el siguiente orden de puntuación:

1º.- Personas empadronadas en cualquiera de los municipios del valle de Aezkoa con residencia habitual al menos nueve meses al año: 50 puntos

2º.- Personas empadronadas en cualquiera de los municipios del valle de Aezkoa no residentes habituales: 40 puntos

3º.- Personas que pertenecen a la Asociación Local de Cazadores "Los Mozolos" y que no estén incluidos en ninguna de las categorías anteriores: 30 puntos.

4º.- Quienes hayan accedido a tarjeta de caza de becada durante varias temporadas (se computa en número de años), obtendrán los puntos que se relacionan en la siguiente distribución:

- 10 años:	30 puntos
- 9 años:	25 puntos
- 8 años:	22 puntos
- 7 años:	19 puntos
- 6 años:	16 puntos
- 5 años:	13 puntos
- 4 años:	10 puntos
- 3 años:	7 puntos
- 2 años:	4 puntos
- 1 año:	1 punto

En caso de empate entre dos o más personas solicitantes, y siempre que no queden tarjetas disponibles para todas, se procederá a la adjudicación mediante sorteo que se realizará de forma pública y al que se convocará a las personas que resulten afectadas.

Asimismo, si realizada la adjudicación de tarjetas mediante puntuación quedasen tarjetas vacantes pero no alcanzase a cubrir el número de solicitudes presentado, la adjudicación se realizará igualmente mediante sorteo público al que se convocará a todas las personas que hayan presentado solicitud y no hayan obtenido tarjeta mediante el sistema de asignación de puntos.

Los sorteos se anunciarán en el tablón de anuncios de la Junta y página web www.aezkoa.org y se comunicarán a los solicitantes a través de la dirección de correo electrónico señalada en su solicitud como medio de comunicación. En caso de no disponer de una dirección de correo electrónico, el aviso se realizará mediante SMS al teléfono que hayan indicado en la solicitud.

Durante la temporada 2025-2026 se pondrán a la venta un total de **19** tarjetas para la caza de becada, sobre el cupo máximo de 21 que se autorizan en el Plan de Ordenación Cinegética.

Una vez se publique el anuncio de venta de tarjetas en el Boletín Oficial de Navarra las personas interesadas deberán presentar solicitud, según el modelo facilitado por la Junta, por escrito y dentro del plazo que se señale en dicho anuncio. No se admitirán solicitudes con carácter previo ni solicitudes por teléfono.

No podrán obtener tarjeta quienes adeuden fondos a la Junta o estén incurso en causas de incapacidad o incompatibilidad prescritas en la Ley Foral de Administración Local y la Ley Foral de Contratos Públicos de Navarra.

No se admitirán propuestas por debajo del precio establecido.

Si tras el sistema de puntos y sorteo previstos en los apartados anteriores quedasen tarjetas vacantes, éstas se adjudicarán a quienes estén interesados por orden de solicitud.

6- Pago del arriendo

El pago del arriendo se efectuará en todo caso antes de la entrega de la tarjeta y de la autorización correspondiente para circular por las pistas del Valle.

7- Uso de tarjeta

El aprovechamiento de la tarjeta será individual y la o el adjudicatario no podrá subarrendarlo ni cederlo a título oneroso. Cualquier modificación en estas condiciones de uso de la tarjeta deberá ser autorizada previamente por la Junta del Valle.

8.- Datos estadísticos

La o el adjudicatario deberá proporcionar a la Junta General del Valle de Aezkoa los datos estadísticos de cada temporada para su remisión al Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra. A tal efecto se les entregará una tarjeta de cupos conforme al modelo habitual autorizado en el que se dispone el cupo máximo diario y se anotarán los ejemplares efectivamente cazados. Estos datos se aportarán a la Junta del Valle una vez finalizada la temporada, a los efectos descritos.

9- Ejercicio de la caza.

En el ejercicio de la caza se deberán tomar cuantas medidas sean necesarias para garantizar la seguridad de todos los participantes. Se evitará cazar a una distancia inferior a 50 metros respecto a la situación de otro cazador, y en todo caso a la que abarque el tiro de una escopeta, teniendo en cuenta además lo regulado en la normativa general de caza en lo que se refiere a limitaciones y prohibiciones (visibilidad, zonas de seguridad etc)

No hay prioridad de ningún cazador o cazadora respecto al resto para acceder a las zonas de caza; por lo mismo, en caso de que se coincida en una misma zona, se pide que sean el compañerismo y la seguridad de las y los participantes los que determinen el modo de proceder.

Aribe, 15 de julio de 2025





JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

OILAGORRAK EHIZATZEKO TXARTELAK
ESKURATZEKO BALDINTZAK
EHIZA BARRUTIA: COTO NA-10418
2025-2026denboraldia

Aezkoako Batzarre Nagusiak oilagorrak ehizatzeko 19 txartel indibidualen salmenta iragartzen du, bakoitza zazpiehun eurotan, gehi BEZa. Agiri honetan adierazitako baldintzen arabera salduko dira, eta 2025-2026 denboraldirako Aezkoako Mendietan (NA-10418) baimendutako guneetan aritzeko balioko dute.

1- Xedea

Agiri honen xedea da Aezkoa Mendietan 6.309 hektareako azalera duen NA-10.418 ehiza-barrutiko oilagorraren ehizaren aprobetxamendua esleitzeko baldintzak ezartzea, eta aprobetxamendu hori 2025-2026 denboraldian gauzatzea.

2.- Aprobetxamenduaren ezaugarriak eta baldintzak

Oilagorraren ehiza da aprobetxamendua, eta Nafarroako Gobernuak urtero ezartzen dituen kupo eta daten arabera eta ehiza-barrutia arautzen duen NA-10418 barrutiaren Ehizaren Antolamendurako Planean xedatutakoari jarraikiz eginen da.

Esleipenduna arduratuko da basa-faunaren babesaren arloan indarrean dauden xedapenak betetzeaz. Baldintza hauetan xedatu ez den guztirako, Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeari eta gainerako araudi aplikagarriari jarraituko zaio.

3- Errentamenduaren epea

Errentamendua denboraldi bakar baterako izanen da, hots, 2025-2026 denboraldirako.

4- Errentamentuaren prezioa

Txartel bakoitzaren prezioa **zazpiehun eurokoa da (700,00 €)** gehi BEZa, hau da, guztira zortziehun eta berrogeita zazpi euro **(847,00 €, BEZa barne)**. Esleipendunek **2025eko abuztuaren 30a** baino lehen ordaindu beharko dute txartelen zenbatekoa. Data horretarako dagokion faktura ordaindu ez dutenak eskabidean atzera egin dutela ulertuko da, eta txartelak Batzarre Nagusiaren esku utziko dira, gainerako eskatzaileei esleitzea onar dezan. Hala, faktura negatiboa igorriko zaie.

Txartela ordaintzeak Aezkoako Batzarre Nagusiaren pista guztietan ibilgailu batekin sartzeko baimena lortzeko eskubidea ekarriko du, oilagorra ehizatzea dagoen egunetarako soilik, baina.

5- Prozedura

Txartelak puntuazio-ordena honen arabera esleituko dira:

1.- Aezkoako edozein udalerritan erroladatuta dauden pertsonak, urtean gutxienez bederatzi hilabeteko bizilekua dutenak: 50 puntu.

2.- Aezkoako edozein udalerritan erroladatutako pertsonak eta hori ohiko bizilekua ez dutenak : 40 puntu.

3.- "Los Mozolos" tokiko Ehiztarien Elkarteko kide diren eta aurreko kategorietako batean sartuta ez dauden pertsonak: 30 puntu.

4.- Zenbait denboralditan (urte kopuruaren arabera zenbatzen da) oilagorraren ehiza-txartela izan dutenek honako zerrenda honetan adierazitako puntuak lortuko dituzte:

- 10 urte: 30 puntu
- 9 urte: 25 puntu
- 8 urte: 22 puntu
- 7 urte: 19 puntu
- 6 urte: 16 puntu
- 5 urte: 13 puntu
- 4 urte: 10 puntu
- 3 urte: 7 puntu
- 2 urte: 4 puntu
- Urtebete: puntu 1

Eskatzaile bi edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, eta denentzako txartelik ez baldin badago, zozketa bidez esleituko da. Zozketa jendaurrean egingen da, eta egoerak eragindakook deituko dira.

Halaber, txartelak puntuazioaren arabera esleitu eta saldu gabeak gelditzen badira, horiek zozketa publiko bidez esleituko dira ere, eta egoerak eragindako pertsona guztiei agertzeko dei egingen zaie.

Halaber, puntuazio bidez esleitu ondoren eman gabeko txartelak geratzen badira eta horien kopurua eskabideena baino gutxiago bada, zozketa publiko bidez egingen da ere. Kasu horretan, dei egingen zaie eskabidea aurkeztu duten eta puntuak esleitzeko sistemaren bidez txartelik lortu ez duten pertsona guztiei.

Zozketak Batzarre Nagusiaren iragarki-oholean eta www.aezkoa.org webgunean iragarriko dira, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, eskabidean harremanetarako adierazitako helbide elektronikoaren bidez ere. Helbide elektronikorik izan ezean, SMS mezu bat igorriko da eskaeran adierazitako telefonora.

2025-2026 denboraldian zehar, oilagorrak ehizatzeko 19 txartel jarriko dira salgai, Ehiza Antolatzeko Planean baimentzen den gehieneko kopuruaren aldean (21).

Txartelak saltzeko iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, interesdunek eskabidea aurkeztu beharko dute, idatziz, Batzarre Nagusiak eskainitako ereduari jarraikiz eta iragarki horretan adierazitako epearen barruan. Aldez aurretik ez da eskaerarik onartuko, eta ezinen da ezta telefono bidez eskatu ere.

Ezinen dute txartelik eskuratu Batzarre Nagusiari dirua zor diotenek, ezta Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta Nafarroako Kontratu Publikoei

buruzko Foru Legean xedatutako ezintasun- edo bateraezintasun-kausetan daudenek ere.

Ez da onartuko ezarritako prezioetik beherako proposamenik.

Aurreko ataletan aurrikusitako puntu sistema aplikatu eta zozketa egin ondoren eman gabeko txartelik gelditzen bada, interesatutako guztien artean banatuko da, eskariaren hurrenkeraren arabera.

6- Arrendamenduaren ordainketa

Errentamendua, nolanahi ere, txartela eta haraneko pistetan barna zirkulatzeke baimena eman aurretik ordainduko da.

7- Txartelaren erabilera

Txartelaren aprobetxamendua banakakoa izanen da, eta esleipendunak ezin izanen du azpierrentan eman, ezta kostu bidez utzi ere. Txartela erabiltzeko baldintza hauetako edozein aldatzeko, Batzarre Nagusiaren alde aurretiko baimena beharko da.

8.- Datu estatistikoak

Esleipendunak denboraldi bakoitzeko estatistika-datuak eman beharko dizkio Aezkoako Batzarre Nagusiari, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari bidaltzeko. Horretarako, kupoen txartel bat emanen zaie, baimendutako ohiko ereduari jarraikiz, zeinetan eguneko ehizatzen ahal den gehieneko kupoa agertzen den, eta bertan benetan ehizatutako ale kopurua idatziko da. Datu horiek denboraldia amaitu ondoren emanen zaizkio Batzarre Nagusiari, adierazitako ondorioetarako.

9-Ehizaren jarduna

Ehizan parte hartzen duten guztien segurtasuna bermatzeko behar diren neurri guztiak hartu beharko dira. Saihestuko da beste ehiztari bat dagoen lekutik 50 metro baino gutxiagoko distantzian ehizatzea, eta, nolanahi ere, eskopeta baten tiramenean. Bete beharko da, gainera, ehizari buruzko araudi orokorrean mugekin eta debekuekin lotuta araututakoa (ikusgarritasuna, segurtasun-eremuak, etab.).

Ehiztari bakar batek ere ez du gainerakoen aldean ehiza-eremuetara sartzeko lehentasunik; horregatik, ehiza-eremu berean bat baino gehiago arituz gero, adiskidetasunak eta guztion segurtasunak gidatu beharko du jarduteko modua.

Aribe, 2025eko uztailaren 15a

